



# Imajina ezazu Euskadi.



- 1) Lagun gisara «Argi» txakurra,  
bizkar gainean maleta,  
geltokiraino abiatu naiz  
harturik mila pezeta.  
Burdinazko den zaldiari nik  
jarria diot arreta,  
nahiz bera egon oso zahartua  
eta erdoilez beteta,  
bihotza pil-pil ipinia zait  
txit atsegina dut eta. (bis)
- 2) Txartela hartu eta bagoaz  
Urola tren hartzera,  
bidaiariak andre heldu bat,  
txakurra eta ni gera;  
tirri-tarraka ta balantzaka  
hementxe goaz aurrera.  
Halako baten helduak gera  
otso aho barrenera,  
eta bertantxe iritsia naiz  
mamu dantza ikustera. (bis)
- 3) Eguzkiaren printzaz bustirik  
eskuratu dut irria,  
aurrez daukadan koadrua da  
benetan zoragarria,  
Oria ibaiko ur gardenetan  
jauzika arrain gorria,  
ipar aldetik, hego aldera  
saltoka kattagorria,  
liluratzeko modukoa da  
gure Izadi berria. (bis)
- 4) «Euskal Herrian Euskaraz» dugu  
oraingo hontan iparra,  
andra, gizonak, ume, helduak,  
erakutsiaz bizkarra,  
ahoz-aho gaur zabaldua da,  
bertako hizkuntza zaharra,  
euskaldundua dugu Baiona,  
Bilbo, Oion ta Lizarra,  
gure euskera salbu da eta  
moztu dezaten bizarra. (bis)







5) Nere barnean pizturik darrai  
 bizi-biziki kandela,  
 jende guztia lanean dabil  
 ogia ziur dutela.  
 Gizaki denak Berdinak gera  
 bi ur ttantoxka bezela.  
 Lurralde hauxe Bakean dago  
 uso zuria zain dela.  
 TTuku-ttuku piiih zein ederra den  
 osatzen doan pardela. (bis)

7) Urola trenan martxan daukagu  
 hau degu hau zoramena.  
 Askatasuna, Ekologia,  
 Euskara dugu hurrena,  
 gizaki denon Berdintasuna  
 Bakea da jarraipena,  
 sentrazioak lehertzeaz ditut  
 gori-gori dut barrena,  
 Euskal Herria gertatu ohi da  
 paradisu ederrena. (bis)

6) Besteen eritzi eta jarrerak  
 onartuz gure artean,  
 Askatasuna lortua dugu  
 halako egun batean,  
 pertsona eta herria aske  
 ikusten da azkenean,  
 zerua urratuz goian dabilen  
 arranoaren antzean,  
 kate astinen beldurrik gabe  
 lasai gabilta kalean. (bis)

8) Gaur egin dudan ametsa ere  
 izan dugu borobila,  
 iratzargailu hotsa entzun da  
 jeiki beharko, mutila!  
 Ai! Bihotzaren taupada hotsa  
 ez da batere isila,  
 aspaldi hontan ibilia naiz  
 ni bizi-pozaren bila,  
 hau gerta dadin nere ametsa  
 egi bihurtu dadila. (bis)

